



OSASUN ESKUBIDEA

prentsa@etxerat.info

Euskal Herrian, 2007ko urria

AURKIBIDEA:

- Sarrera 3. orria
- Osasun egoera 4. orria
- Zer dela eta halako egoera larrian? 7. orria
- Zein baldintzetan dituzte gaixotasun larriak dituztenak? 14. orria
- Ondorio nagusiak 15. orria

SARRERA

Ondoko lerroetan gure senide euskal preso politikoen osasun eskubidearen urraketaren inguruko hainbat datu egiten ditugu publiko. Gure senideen aurka espainiar eta frantziar estatuek indarrean duten espetxe politikak zer nolako ondorioak dakartzan azaleratzen dugu, batetik.

Gaixotasun oso larriak dituztenen gaixotasunen hainbat xehetasun ematen ditugu, bestetik. Gaixotasunak ala osasun arazoak dituztenek zer nolako tratua jasotzen duten ere azaltzen dugu.

Halaber, gaixotasun fisikoak eta sikikoak ala osasun arazoak dituztenek zer nolako oztopoei, debekuei eta tratuei egin behar izaten dien aurre jakinarazten dugu.

Azkenik, honetatik guztitik ateratako ondorio labur baina oso esanguratsuak egiten ditugu publiko.

OSASUN EGOERA

Atal honetan gure senide preso politikoak zer nolako osasun egoeran diren esaten dugu. Atal honek bi azpi-atal ditu. Aurrenekoan, oso gaixorik aurkitzen diren gure senideek dituzten osasun arazoan hainbat xehetasun publiko egiten ditugu. Bigarrengoan, berriz, datu orokorrak hartu ditugu kontuan.

Oso gaixotasun larriekin

Egun hamabi euskal preso politiko ditugu gaixotasun fisiko edo psikiko oso larriekin. Gure senide preso politiko hauen askatasuna eskatu da Zentralizatutako Espetxe Zaintza Epaitegian. Ondoko lerroetan, aipatu euskal preso politikoaren osasun egoeraren berri ematen dugu:



Jon Agirre Agiriano. Aramaioko semea. 1942an jaioa. 1981eko maiatzaren 5ean atxilotua. Langraitzeko espetxean dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: artrosi orokortua (bi aldakak ukituak). Hernia diskala L4-L5en artean. 2005ean egin zioten eskuineko aldakako ebakuntza: protesi bat ezarri diote. Diabetes Mellitus 1998an diagnostikatua. Horren ondorioz: alde biko miopia, hiperkolesterolemia, hiperglizeridemia eta Miokardioko Bihotzeko Larriaren arriskua. Honetaz gain, eskuineko eskuko Dupuytre gaixotasuna.



Bautista Barandalla Iriarte. Etxarri Aranatzeko semea. 1964ean jaioa. 1990eko irailaren 18an atxilotua. Iruñeko espetxean dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: Kolitis ultzerosoa. 02/03/13an diagnostikatzen diote eta 02/04/30ean larrialdiko ebakuntza egiten diote Zaragozako Miguel Servet Ospitalean: Kolektomia eta Ileostomia bat egiten diote. 03/02/04ean ebakuntza berria: Mukosektomia bat eta ileostomiaren berrezarpena. Espondilitis ankilosantea eta bi aldeetako Sakroileitisa.



Angel Figueroa Fernandez. Getxoko semea. Langraitzeko espetxean dute egun. 1971ean jaioa. 1994ko urriaren 25ean atxilotua.

Bere osasun egoera ondokoa da: Epilepsia tenporala eta eskuinaldeko esklerosi mesiala. Gaixotasun larri eta sendaezina da hau: konbultsioak, portaera aldaketak eta delirioak eragin ditzake. 2005etik aurrera, Epilepsia atakeak izan ohi

ditu, maiztasun handiarekin. 06/06an ebakuntza bat egin zioten, lobektomia bat, hain zuzen. Honen ondotik, baina, krisiak areagotu egin zaizkio: 2006ko eta 2007ko uztailekoak dira larrienak; azken garaian etengabeko krisialdiak ditu eta alde fisiko zein psikologikoan larriki eragiten diote. 07/04/12aren inguruan Kordobara itzuli zuten, baldintza kaskarretan: 10 egunetako bidaia, ia lorik egin gabe... 07/06/01: Langraitzera itzuli zuten berriro, kontsulta baterako. Funtzionarien aldetiko jipoi bat salatzen du. Bertatik Txagorritxuko ospitalera eramaten dute, krisi berri batek eraginda. 07/06/05: Neurologia kontsulta Gurutzetako Ospitalean. Biharamunean Langraitzera itzultzen dute. Uztailean zehar krisialdiak areagotzen dira, ia eguneroko kontuak bilakatuz denbora batean. 07/07/23: gose greba hasiko du, kartzelan jasaten dituen baldintzak eta lo egin eza salatuz. Txagorritxuko neurologoaren arabera (07/07/16ko txostena), bere gaixotasunari aurre egin ahal izateko guztiz beharrezkoa du lo egitea, ordutegi finko bat jarraitzea eta estres egoerak ekiditea; baldintza horietako bakar bat ere ez da betetzen bere kasuan. 07/08/17: Bi krisialdi berri izan ditu. 07/09/20: Errepikatu zaizkio krisialdiak: bortitzak, konorte galerarekin.

Beraien jatorria oraindik zehaztu ez duten krisialdi hauek guztiak jasanez denbora luzez egon ostean, 2007ko urriaren 22an, Barakaldoko Gurutzeta ospitalera eramane zuten mediku frogak egin, bere osasun egoera diagnostikatu eta tratamendu egokia jartzeko.



Jose Ramon Foruria Zubialde. Markinarra. 1949an jaioa. 4 urte daramatza preso. Dueñasko kartzelan dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: Neo besikala; Maskuriko minbizia. 04/11/22an Gregorio Marañoneko Ospitaleko Urologia kontsultan egindako biopsian Kartzinoma uroteliala erakusten du. 05eko urtarrilean BCG, zistoskopia eta zitologia kontrolak agintzen ditu espezialistak. Une honetan bukatua du fase honetako tratamendua.



Marilo Gorostiaga Retuerto. Iruñearra. 1956an jaioa. 1997ko abenduaren 18an atxilotua. Logroñoko espetxean dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: Eskuineko bularreko minbizia (Kartzinoma duktal infiltrantea). 05/05/03an Kartzinoma duktal infiltrantea erakusten dute histologiako emaitzek. Uztailan mastektomia partzial bat egiten diote Logroñoko Ospitalean. Abuztutik aurrera erradioterapia sesioak hartzen hasten da Iruñean. Bitartean Ginekologia kontsultara (COFES-Iturrama) doa non mioma uterino bat diagnostikatzen dioten: 2006ko otsailean bi mioma azaltzen ditu maginako EKOak. Honetaz gain, ebakuntzaren ondoriozko Linfedema, Diabetes Mellitus, Dislipemia mistoa eta Hipertentsio arteriala ditu. 2007ko irailetik aurrera, espetxeak trabak

jartzen ditu kanpoko fisioterapeutak espetxean Mariloren Linfedema behar den bezala eta behar den maiztasunarekin tratatzeko. Behin bakarrik sartu ahal izan da, maiztasun jakin baterako baimenik ez duelarik.



Gotzone Lopez de Luzuriaga Fernandez. Aguraingo alaba. 1959an jaioa. 1989ko irailaren 17an atxilotua. Jaenen dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: Bularreko minbizia topatu zioten 2007ko ekainaren hasieran (Kartzinoma duktal infiltrantea, 1. graduan). Ekainaren 26an ebakuntza egin zioten Jaengo Ospitalean eta adenokartzinoma erauzi zioten.

Ebakuntza egin ostean, Jaengo ospitaleko onkologia zerbitzuak erradioterapia lokoregional tratamendua jarraitzeko agindu zion.

Hasiera-hasieratik, arazo asko ari da izaten tratamendu hori burutzeko (irakurri 11. orria).



Juan Jose Rego Vidal. Donostiarra. 1939an jaioa. 12 urte daramatza preso. Mansillako kartzelan dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: Gaitz zerebrobaskularra (1988tik ezaguna), Diabetes Mellitus eta hipertentsioa duela hamabost urte baino gehiagotik. Horren ondorioz, Retinopatia diabetikoa, kataraten hastapena bi begietan eta ikusmenaren galera nabarmena bi begietan: ezintasun larria irakurtzeko; ikusmen zorrotasunaren galera larria. Bi aldeko hipoakusia neurosensoriala. Prostataren hipertrofia. B12 bitaminaren eskasia. 2005ko azaroan istripu zerebrobaskular bat izan zuen (tronbosia). Ikusmena eta ezkerreko hankako indar eta mugikortasun gabezia eragin zion. Aldi berean, sei hilabetez egon zen oroimen galerarekin. Zorabioak eta sudur-odol jarioak aldiro. Izan ere, bere adina eta bere gaitzen larritasuna kontuan hartuta, kalean egonik ere oso hurbiletik eta asko zaindu beharreko pazientea litzateke. 2007/07: Sendagileak prostataren ebakuntza gomendatzen du. 2007/09: Oftalmologoak ezkerreko begiko ebakuntza gomendatzen du, ikusmena ia guztiz galdua duelarik (kataratak). Eskuinekoan, berriz, galera oso nabarmena da ere. Medikuen arabera, bere kasua larria da oso.



Josu Uribetxebarria Bolinaga. Arrasatearra. 1956ean jaioa. Uztailean 10 urte beteko ditu espetxeratu zutenetik. Langraitzen dute egun.

Bere osasun egoera ondokoa da: Giltzurruneko minbizia. Ezker giltzurruneko kartzinoma. 2005/06/09an nefrektomia bat egiten diote: ezkerreko giltzurruna kentzen diote. Ondorioz, aldian aldiko kontrolak egin beharko ditu Urologiako Kontsultan; bizitza osorako tratamendua da. Egoera hau (espetxearena, alegia), noski, ez da egokiena gisa honetako gaixo batendako: espetxean jarraituz, kanpoan egonik baino arrisku larriagoa du gaitza birpiztu dadin. Bestela ere, 2 urtetan gaitza birpizteko arriskuaren aukera % 51ekoa da.

Zortzi euskal preso politiko hauetaz gain, beste lau senide preso ere gaixotasun larriak jasanez ditugu. Senide hauek jasaten dituzten gaixotasunak, ordea, sikikoak dira, eta, ez dute beraien izen abizenak publiko egiterik nahi. Beraien nahia errespetatuz, soilik jasaten dituzten gaixotasunen berri emango dugu:

Autolesio historia eta Depresioak dituen senide presoak. Balizko delirio krisiak izan ditu. Parisen zegoela, Espetxeko Mediku Psikiatriko Zentroan eduki zuten bi hilabetez. 1996ean artatzen duen psikiatraren diagnostikoaren arabera, Antsiazko depresioaren patologia eta oinarritzko pertsonalitatearen desoreka da bere gaitza.

Nahasmen obsesibo-konpulsiboa dituen senide presoak. Kanpoan ere gaitz berarekin zebilen. Krisi garaiak eta egoera lasaiak tartekatzen ditu.

Depresio koadro larria duen senide presoak. Pertsonalitate eskizoidea sumatzen zaio.

Nahasmen eskizofreniformea duen senide presoak. Depresioa sintoma psikotikoekin.

Egoera orokorra

Aipatu senideez gain, senide preso ugari ditugu, horren larriak izanik ez ere, gaixotasunak dituztenak. Fisikoak nahiz sikikoak. Gaixotasun horien artean, ondokoak aipatu genitazake: oinazeak, larruko afekzioak, hepatitisak, gastritisa, antsietatea, depresio krisialdiak, bista eta entzumen galerak, hezurretako gaitzak... Kartzelak eragindako gaixotasunen bat detektatua diogu, euskal preso politikoaren %30 inguruari. Eta, ziur gaude baditugula oraindik detektatu ez ditugun, baina, espainiar eta frantziar estatuen espetxe politikak eragindako ondorio fisikoak eta sikikoak jasaten ari diren senide presoak.

ZER DELA ETA HALAKO EGOERA LARRIAN?

Gure senide preso politikoak aurreko lerroetan aipatu ditugun gaixotasun fisiko nahiz sikiko larriekin egotearen arrazoia beraien aurka espainiar eta frantziar estatuek indarrean duten espetxe politika da. Kasu batzutan, kartzela bera izan da aipatu gaixotasunak zuzenean eragin dizkiona. Kasu guztietan, berriz, dituzten gaixotasunak okertu egin dizkie kartzelak. Hau guztia aztertu dugu, ondoko bi azpiatal hauetan:

Espetxe politikak gure senideen suntsipena helburu

Gure senide preso politikoak Euskal Herritik urrun diren kartzelatan, beraien artean sakabanatuta, eta, bizi baldintzarik gogorrenetan dituzte. Egunak dituen 24

orduetatik 18, 20, 22... orduz hezeak diren eta argi naturala oso gutxi sartzen den ziega txikietan giltzaperatuta izaten dituzte. Bakarturik. Guztia debekatuta ala oso mugatuta eta interbenituta dute: kirola egitea, tailerretara joatea, lagun eta senideekin bisitak, telefono deiak eta eskutitzak,...

Horri guztiari, frantziar nahiz espainiar estatuak gure senideak ahalik eta denbora gehienez espetxeraturik mantentzeko indarrean jarri dituzten neurriak gaineratu behar dizkiogu: 40 urteko espetxealdia, espetxe zigorrak oso osorik betetakoak ez askatzea, zigorrak bikoiztea ala hirukoiztea,...

Halako baldintzetan egun, hilabete eta urteak igarotzen dituzte. Gaixotasun fisiko larri eta sendaezinak dituen Jon Agirre Agirianok, esaterako, 26 urte daramatza halako baldintzetan espetxeraturik. Eta, neurri horiek, nola ez, gure senideei lehen aipatu ditugun ondorio fisikoak nahiz sikikoak eragiten dizkiete. Halaber, beraien buruak zauritzera eta, baita ere, beraien buruaz beste egitera bultzatzen dituzte. Horren guztiaren erakusle, ondoko datuak:

- **Jose Ramon Goikoetxea Bilbao.** Loiuko preso politikoa. 1985eko ekainaren 26an urkatua agertu zen Alcala Mecoko espetxean.
- **Mikel Lopetegi Larrarte.** Tolosako preso politikoa. 1988ko martxoaren 2an urkatua agertu zen Herrera de la Mancha kartzelan.
- **Jean Groix.** Britainiako preso politikoa –Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kidea-. 1991ko urtarrilaren 20an urkatua agertu zen Fresneseko kartzelan.
- **Jose Maria Aranzamendi Arbulu.** Elorrioko preso politikoa. 1997ko otsailaren 7an urkatua agertu zen Alcala Mecoko kartzelan.
- **Juan Karlos Hernando Gonzalez.** Arrigorriagako preso politikoa. 1997ko uztailaren 20an urkatua agertu zen Albaceteko kartzelan.
- **Ramon Gil Ostoaga.** Legazpiko preso politikoa. Kaleratu eta gutxira, 2002ko urriaren 23an, bularrean tiro bat, eta, alboan eskopeta bat zuela agertu zen Legazpiko eremuetan.
- **Oihane Errazkin Galdos.** Donostiako preso politikoa. 2004ko uztailaren 7an urkatua agertu zen Fleury Merogiseko kartzelan.
- **Jose Angel Alzuguren Perurena.** Berako preso politikoa. 2005eko urriaren 31n urkatua agertu zen Soriako kartzelan.
- **Igor Angulo Iturrate.** Santurtziko preso politikoa. 2006ko otsailaren 27an urkatua agertu zen Cuencako kartzelan. Bere heriotzaren nondik norakoak ez dira argitu.

Pertsona hauek guztiak nahasmen edo desoreka psikologiko nabarmenik gabe espetxeratu zituzten. Kartzelak beraien aurka, besteak beste lehen aipatutako neurri eta baldintza gogorrekin, egindako presioak bultzatu zituen beraien buruaz beste egitera. Ramon Gil Ostoagari, presio hori jasan, eta, kaleratzean jasan zuen presio mediatikoa gaineratu behar zaio.

Aurten ere, gure hiru senide preso politikok beraien buruei zauriak eragin dizkiote frantziar eta espainiar estatuen aldetik, beraien espetxe politika medio, jasaten ari diren neurri gogorrak medio. Alfontso Sebastian Donostiako preso politikoa Badajozeko kartzelan, joan den apirilaren 6an, zauri sakonak egin zituen besoetan eta lepoan. Beren borondatea errespetatuz beraien izenak publiko egingo ez ditugun beste bi euskal preso politikok ere, beraien buruei zauri sakonak eragin dizkiote. Lehen aipatu duguna nabarmentzen dugu: ezinezko zaigu, bi estatuek indarrean duten espetxe politikaren ondorioz, gure zenbat senide egon daitezkeen antzeko egoeran jakitea.

Osasun eskubidea, ukatua

Eskubide unibertsala izanik ere, gure senide euskal preso politikoei osasun eskubidea ukatu egiten diete bi estatuek. Gaitz larri eta sendaezinak nahiz heriotza bera ere eragiteaz gain, osasun arazoetatik sendatzea ere ukatu egiten diete. Horren guztiaren erakusle, ondoko puntuak nabarmendu behar ditugu, adibide konkretuekin:

- Osasun asistentzia eza. Ospitalera berandu eramanak izaten dira sarri gure senideak. Ondorioz, diagnostikoak ere oso berandu egin izan ohi dizkiote, hainbat gaixotasunen kasuan, horrek ekar ditzakeen ondorio larriekin. Horren guztiaren adibide, ondoko kasuak:
 - Aranjuezen duten Iker Arzelus Bilboko preso politikoiari, 2005eko irailaren 21ean, kirola egiten ari zela sorbalda atera egin zitzaion. 13 ordu itxaron behar izan zituen ospitalera eramana izan arte. Ospitalera, furgoneta arrunt batean eraman zuten, bere sorbaldaren egoera kontuan hartu gabe. Horrenbeste ordu igarotzearen ondorioz, ospitalean ebakuntza egin behar izan zioten sorbalda sartzeko eta ez zaio guztiz ongi geratu. Aurten, martxoaren 5ean, berriro atera zitzaion sorbalda. Espetxean ezin izan zioten sartu, eta, ospitalera eraman zutenerako, berriro, orduak igaro ziren. Apirilean gauza bera gertatu zitzaion. Ospitalean ebakuntza berria egin behar diotela esan diote baina kartzelak ez dio jaramonik egiten ospitalearen esanari.
 - Mikel Gil Zerberak ziatika atakea izan zuen iazko abenduaren 23an. Ez zuten ordea ospitalera eraman.
 - Gaixotasun larriak dituen Juan Jose Rego Vidalek 2005eko azaroaren 13an eta 15ean bi tronbosi izan zituen. Hala ere, kartzelatik ez zuten ospitalera eraman nahi. Gose greban hasiko zela esan behar izan zion kartzelari ospitalera trasladatua izateko. Ospitalerako bidaian eta ospitaletik kartzelarakoan, irainak eta probokazioak jasan zituen poliziengandik.
- Konfiantzazko medikuei bisitak burutzeko debekuak: azken urteetan, salbuespenak salbu, gure senide preso politikoei beraien konfiantzazko

medikuek bisitatzea sistematikoki ukatu egiten diete kartzela agintariak. Eta, onartu izan dituzten konfiantzazko sikiatra eta sikologoen asistentzia kasuetan, bisitak baldintza ezin kaxkarragoetan egin izan dira: derrigorrez gazteleraz, eta espetxeko sikologo edo funtzionario baten aurrean. Hau da, kasu hauek eskatzen duten intimitate eta konfidentziasun eskubideak goitik behera urratuz.

- Gure senide preso politikoei konfiantzazko mediku, sikiatra etabarrek bisitatzea debekatu egiten dietenean, kartzelako medikuekin jarri izan ohi dira harremanetan gure senide presoek konfiantzazko medikuak. Sarri, ordea, kartzelako medikuek ez diote gure senideen konfiantzazko medikuei gure senideen osasun egoeraren inguruko informaziorik ematen. Adibide gisara:
 - Osasun arazo sikologiko larriak –trastorno obsesibo konpulsiboak dituen, eta, bere izena publiko egin nahi ez duen gure senide preso politikoko bati, iazko otsailean, beherakada sakona sumatu zioten bere senideek. Depresio koadroa zuen. Bere senideek azaldu zutenenez, farmakologia tratamenduan zegoen dosia gutxitu egin zioten (40 mg-ra) kartzelako medikuek eta gutxitu aurretik zuen dosira (60 mg-ra) igotzea proposatzen zuten. Bere egoera okerrera egiten ari zen, eta, iazko maiatzean bere konfiantzazko sikiatra batek bera bisitatzea eskatu zuen. Kartzelak ukatu egin zion bisita. Orduan, kartzelako medikuekin jarri zen harremanetan aipatu senidearen konfiantzazko sikiatra. Baina, hauek ere ez zioten espediente medikuaren kopia eman. Azkenean bere dosia igotzea lortu egin zen baina oraindik bere konfiantzazko sikiatrak bere egoeraren txosten ofizialik gabe jarraitzen du, eta, aipatu senidea, konfiantzazko espezialisten laguntza profesionalik gabe da.
 - Jakin berri dugunez, halaber, Madrilgo espetxe agintarien esku behar ziren gaixotasun larriak dituen Juan Jose Rego Vidalen osasun egoeraren zenbait analitika, dossier, eskaera, etabarrak desagertu egin dira.
- Gure senide preso politikoak kartzelatik ospitalera eramanak izaten direnean polizien aldetik furgonetan nahiz ospitalean bertan jasaten duten tratua ere nabarmentzekoa da atal honetan. Tratu horren ondorioz, sarri gure senideak baldintza horietan kontsultak egitera ukatu egiten dira. Adibide gisara, ondokoak aipatuko ditugu:
 - Mertxe Chivite Antsoaingo preso politikoa Evryko ospitalera eraman zuten 2005eko martxoaren 29an. Bertan jasandako tratua guztiz iraingarria izan zen: froga guztietan poliziak uneoro ondoan izan zituen, eta, ebakuntza egiterakoan, eskuburdinak ohera lotu eta anestesiatu egin zuten.
 - Iazko otsailaren 23an, gaixotasun larria duen Marilo Gorostiaga ospitalera eraman zuten. Kontsultan zela berak nahiz erizainek poliziei gelatik irteteko eskatu zieten. Kasurik ez zieten egiten, eta, azkenean, erizainek bata bat eman zioten Marilori bere gorputza tapatzeko. Kontsulta ostean, beraien presentzia onartzen ez bazuen frogarik egin gabe itzuliko zela mehatxu egin zioten Marilo

Gorostiagari poliziek. Ordu batzuk beranduago polizia berekin eraman zuten mamografia eta ekografia bat egitera. Gizonezkoa zen polizia bertatik ateratzea lortu zuen baina emakumezko polizia bertan geratu zen. Martxoaren 8an onkologia kontsultara eraman zuten. Kartzelatik irtetean, eskuburdinak jarri zizkioten, gorputzaren atze aldean eta estu-estu lotuta. Marilo Gorostiaga kexatu egin zen, egiten ari zirena arriskutsua zela, bere gaixotasuna medio “linfagitis”-a sortu ahal ziotela azalduz. Kontsultan sartu arte horrela izan zuten. Ospitalean medikuek gauza bera esan zioten baina, haiei ere ez zioten jaramonik egin, eta, ondorioz, eskuburdinen marka sakonekin itzuli zuten kartzelara poliziek.

- Iazko uztailaren 6ean, Aitziber Sagarminaga Bilboko preso politikoa ospitalera eraman zuten ginekologia kontsulta egitera. Trasladoan nahiz ospitalean, eskuburdinak estuki lotuta zituela izan zuten poliziek. Halaber, kontsultan presente egongo zirela esan zioten poliziek. Jarrera horren aurrean, kontsultarik ez egitea erabaki zuen Sagarminagak.
- Gaixotasun larri eta sendaezina duen Gotzone Lopez de Luzuriaga, medikuek agindutako erradioterapia sesioak hartzeko oztopo ugari jasaten ari da: hasterako denbora asko itxaron behar izan du. Halako kasuetarako protokoloek diotena baino 3 aste beranduago hasi du tratamendua, espexetik ospitalerako trasladoak zehaztu behar izatearen ondorioz. Gainera, trasladoak furgoneta arruntean eta eskuburdinak atze aldean jarrita dituela burutu ditu. Ebakuntzaren ondorioak jasan dituen besoan linfedema eragin diezaiokete trasladoak baldintza horietan gauzatzearen ondorioz. Halaber, trasladoak onartezinak diren baldintzetan burutzen dituzte: bultzaka,...

Tratu horren ondorioz -ukatu egin delako baldintza horietan sesioak jasotzera joatea-, eta, bere bila joan ez direlako, guztira, lau bider galdarazi dizkiote programatuta zituen erradioterapia sesioak. Medikuek azaldu dutenez, sesio horiek galtzeak aurreikusi ezin daitezkeen ondorio larriak eragin ahal dizkiote jada egoera larrian den Gotzone Lopez de Luzuriagari.

- Dituzten gaixotasunengatik diagnostikatuak eta tratatuak izateko Euskal Herrira ekarriak izatea eskatzen denean ere, ohikoena, aipatu trasladoa kartzela agintarietara ukatzea izaten da. Ondorioz, kontsulta egunak galdu egiten dituzte, diagnostikoak eta tratamenduak oraindik eta gehiago atzeratuz. Adibide gisara, ondokoak:
 - Gaixotasun larriak dituen Juan Jose Rego Vidali, esaterako, aurten martxoaren 12an eta abuztuaren 1ean ukatu egin diote aipatu eskaera beste behin ere (2004ean ere gauza bera egin zioten) DGIPek eta Zentralizatutako Espetxe Zaintza Epaitegiak, hurrenez hurren.
 - Jesus Mari Mendinueta Arbizuko preso politikoa, dituen osasun arazoetatik konfiantzazko medikuengandik diagnostikatu eta tratatu izateko 1998tik gaur arte Iruñeara eramateko egin dituen eskaera guztiei –baita aldi baterakoei ere- ezetz erantzun die ala ez die

erantzunik eman kartzela agintariak. Joan den maiatzean galdu zuen, esaterako, Iruñeko ospitale batean zuen kontsulta bertara eramana ez zelako izan.

- Emilio Gonzalez Diaz Hondarribiako preso politikoak, dituen osasun arazoak medio, ebakuntza egitera Donostiara traslatatua izatea egindako eskaerari ezetz erantzun zioten kartzela agintariak joan den maiatzean.
 - Iñaki Etxeberria Iruñeko preso politikoak, dituen osasun arazoak ikusteko zain ditu Iruñeko ospitale batean baina, oraindik ez du bertara joateko egindako eskaeraren erantzunik jaso.
- Gaixotasun oso larriak dituztenekiko egindako askatasun eskaerak sistematikoki ukatzen ari dira. Ondorioz, gaixotasun oso larriak dituzten gure senideen osasun egoera oraindik eta gehiago okertzeko arrisku larria dago. Hemen dituzue, orain arte egindako eskaerei espainiar Estatuak eman dien erantzuna:
 - Jon Agirrek, Bautista Barandallak, Angel Figeroak, Jose Ramon Foruriak, Marilo Gorostiagak, Juan Jose Regok, Josu Uribetxeberriak, Gotzone Lopez de Luzuriagak eta, gaixotasun sikiko larriak dituzten hiru senide preso politikok egindako askatasun eskaerari ezetz erantzun diete kartzela agintariak.
 - Gaixotasun sikiko larria duen senide preso politiko bat, egindako askatasun eskaeren erantzunen zain da.

Oso ongi erakusten du gure senideekin egitera ari direnak, Gotzone Lopez de Luzuriagarekin izan duten jarrerak: Gotzone Lopez de Luzuriagaren osasun arazo larriak medio, 2007ko ekainaren 21ean, Jaengo kartzelako tratamendu juntak Gotzone Lopez de Luzuriaga 3. graduan jartzeko eskaera egin zion Espetxe Instituzioetako Zuzendaritzari (DGIP). Urte bereko uztailaren 9an, DGIP-ek Gotzone Lopez de Luzuriagari 3. gradua aplikatzea erabaki zuen, bere osasun egoera larriagatik. Horrela, Jaengo kartzelako tratamendu juntak pasa den abuztuaren 2an, guztien adostasunarekin, Zentralizatutako Espetxe Zaintza Epaitegiari Gotzonerentzako baldintzapeko askatasuna eskatzea adostu zuen. 8 egun beranduago, ordea, tratamendu junta berak, kartzelako medikuen zuzendari ordearen kontrako jarrerarekin, 8 egun lehenago erabakitakoaren aurkako egitea erabaki zuen, hau da, Gotzone Lopez de Luzuriagari baldintzapeko askatasuna ez aplikatzeko eskatzea, ebakuntza kirurgikoa egin ziotelako eta metastasirik ez zuelako. Fiskalak, orduan, auzitegi-medikuari informea eskatu zion, eta, honek, Gotzone bisitatu ere egin gabe, 2007ko irailaren 21ean, informea egin zuen. 2007ko azaroaren 16an, Espetxe Zaintza Epaitegi Zentralak askatasuna ukatu egin zion.
 - Halaber, dituen gaixotasun larriengatik askatu ostean, arrazoi politikoak medio, berriro espetxeratu dutenik ere bada. Dituen osasun arazo larriengatik –ebakuntza egin eta minbiziaren aurkako tratamenduari jarraitzeko-, iaz, martxoaren 14an, baldintzapeko askatasunean utzi zuen frantziar Estatuak

Joxe Domingo Aizpurua Usurbilgo preso politikoa. Pasa den irailaren 6an, ordea, Parisko Epaitegiko 14. sekzioak berriro ere espetxera bidali zuen, arrazoi politikoak medio. Ondorioz, bere gaixotasuna, jada larria dena, oraindik eta gehiago okertzeko arriskua dago.

Gure senideei dituzten gaixotasunetatik sendatzeko, ala, dituzten gaixotasunak okerrera ez joateko aukerarik ez uzteak, esan bezala, ondorio ezin larriagoak eragiten ditu. Horren erakusle, ondoko datuak:

- **Juan Jose Crespo Galende.** 27 urterekin hil zen Herrera de la Manchako kartzelan, 1981eko ekainaren 19an, gose greban zela.
- **Joseba Asensio Artaraz.** 27 urterekin hil zen Herrera de la Manchako kartzelan, 1985eko ekainaren 26an, tuberkulosiak jota. Tuberkulosia izanik ere, katarroarentzako medikamentuak eman zizkieten kartzelan
- **Juan Karlos Alberdi Martiarena.** 30 urterekin hil zen Herrera de la Manchako kartzelan, 1988ko ekainaren 15ean, bihotzekoak jota. Ez zegoen arrisku taldeen barnean, eta, bihotzeko arazorik ere ez zuen.
- **Mikel Zalakain Odriozola.** 58 urterekin hil zen Martuteneko kartzelan, 1990eko abenduaren 1ean, bihotzekoak jota. Aurretik beste bihotzeko bat jasan zuen, baina, ez zioten behar bezala tratatu. Hilabete luzeetan, medikuek aholkatutako tratamendua eta asistentzia ukatu egin zizkion kartzelak.
- **Pello Mariñelarena Imaz.** 29 urterekin hil zen Fresneseko kartzelan, 1993eko maiatzaren 15ean, ihesaren ondorioz. Izugarritzko mediku asistentzia eza jasan zuen kartzelan.
- **Roberto Sainz Olmos.** 41 urterekin hil zen Aranjuezeko kartzelan, 2006ko martxoaren 4an, bihotzekoak jota. Bihotzeko arazoak izan arren, eta, berak hala jakinarazi arren kartzelako agintariei, hauek ez zioten jaramonik egin, eta, bihotzeko arazoak haizeen aurkako medikamentuekin tratatu zizkieten.

Gure senide preso politiko hauen guztien heriotzetan, beraz, kartzelaren aldetik jasadako osasun asistentzia ezak eragin zuzena izan du.

Halaber, hainbat eta hainbat gure senide preso politiko, kartzelan izugarritzko osasun asistentzia eza jasan ostean kaleratuak izan dira, denbora oso gutxira, kalean hiltzeko. Horren jakitun izanik, hau da, berehala hil egingo zirela jakinik kaleratu zituzten euskal preso politiko horiek, jada beranduegi zelarik beraien biziak salbatzeko. Horren erakusle, ondoko kasuak:

- **Josu Retolaza** 1987an hil zen, kaleratu eta gutxira, minbizia izan arren garatxo soil bat balu bezala tratatu zutelako kartzelan.
- **Jabi Gorostiza** 1995ean hil zen Basurtoko ospitalean, kaleratu eta urtebetera, osasun asistentzia ezaren ondorioz laringeko minbizia garatu zuelako.

- **Juan Jose Etxabe** 1996ean hil zen, kaleratu eta 18 egunetara, bihotzekoak emanda. Fresneseko kartzelan izan zuten denboran bere osasun egoerak nabarmen egin zuen okerrera, kartzelaratu zutenerako gairiditua zuen hepatitis C-a kartzelako denboran berriro garatu egin zitzaiolako.
- **Jean Louis Maitia** 1997. urtean hil zen, kaleratu eta bi hilabetetara, bihotzekoak eman ostean. La Sante kartzelan egon zen denboran bere osasunak okerrera egin zuen.
- **Santiago Diez** 1997. urtean hil zen, kaleratu eta zazpi hilabetetara, kartzelan jasan zuen osasun asistentzia ezaren ondorioz, masailezur azpiko minbizia garatu zuelako kartzelan.
- **Esteban Esteban Nieto** 1999. urtean hil zen, kaleratu eta 5 hilabete eta 20 egunera, kartzelan jasan zuen osasun asistentzia ezaren ondorioz, minbizi terminala garatu zuelako.
- **Kepa Miner** 2004. urtean hil zen, kaleratu eta bost urtetara, espetxean jasandako bizi baldintza gogorrek eragindako arnasketa arazo larriak zituelako.

ZEIN BALDINTZETAN DITUZTE GAIXOTASUN LARRIAK DITUZTENAK?

Kartzelak eragindako ala okertutako gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten gure senide preso politiko guztiak, gaixotasunen sorleku diren, elikadura kalitate kaxkarrekoa izaten den, eta, zikintasuna eta tentsioa eguneroko ogi diren kartzelatan mantentzen dituzte.

12 euskal preso politiko horietatik 4 soilik dituzte Euskal Herriko kartzelatan. Hauek, kontsultara eramanez direnean, konfiantzazko medikuekin kontsultak burutu ahal dituzte. 4 hauei ere, ordea, beste 8ei bezalaxe, konfiantzazko medikuek kartzelan kontsultak burutzea ukatu egiten diete.

Nabarmentzekoa da, halaber, **Angel Figeroaren** kasuan, medikuek lasaitasuna eta lo asko egitea agindu arren, ezinezko zaiola hori guztia kartzelan egitea. Kartzelako zaratak galarazi egiten baitio lasai lo egitea, eta, tentsioa eguneroko ogi baitu.

Gaztela Leongo Mansilla kartzelan duten **Juan Jose Rego Vidalen** kasuan, berriz, kartzelako medikuarekin soilik ostegunetan egoteko aukera duela nabarmendu behar dugu. Beste egunen batean bere beharra izanez gero, ezin du asistentzia hori jaso. Halaber, konfiantzazko medikuen bisitak jasotzeko baimena eskatu izan du behin baino gehiagotan baina ez du sekula kartzelaren aldetik erantzunik jaso, eta, ondorioz, ez ditu bisita horiek gauzatu ahal izan. Telefonoz deitzeko aukerarik ere ez du izan konfiantzazko medikuei. Halaber, konfiantzazko medikuekin tratatua eta diagnostikatua izateko Euskal Herrira trasladatua izateko egindako eskaerei, orain artean, ezetz erantzun die kartzela agintariek. Ildo honetan,

kartzelako medikuaren eta Leongo ospitaleko medikuaren aldetik orain artean jaso duen tratua oso kaxkarra izan dela nabarmendu behar dugu.

Iruñeko kartzelan duten **Bautista Barandallak**, berriz, ez du gaixotasun larriak dituztenen kasuetan oso lagungarria den beste euskal preso politikoen babesa jasotzeko aukerarik. Bera da aipatu kartzelan duten euskal preso politiko bakarra.

ONDORIO NAGUSIAK

- Gure senide preso politikoen aurkako espetxe politikak gaixotasun fisiko nahiz sikiko larriak eragiten ditu. Gure senideak, beraien buruak zauritu eta beraien buruaz beste egitera bultzatzen ditu.
- Gure senideak urrunduak, sakabanatuak, eta, komunikazio bideak, baita ere, konfiantzazko medikuekin, debekatuak ala guztiz mugatuak izatearen ondorioz, ezinezko zaigu zehaztasun osoz gure senide preso politiko guztien osasun egoera fisiko nahiz sikikoaren berri izatea.
- Gaixotasunak ala osasun arazoak detektatutakoan ere, beraien sufrimendua areagotu asmoz, kartzela agintariek zaildu egiten dute gaixotasun ala osasun arazo horiek sendatzea ala gehiago ez okertzea.
- Espetxe politika honek hil egiten du, jada, gure 22 senide preso politikorekin egin duen bezala.
- Gure senideen biziak jolasten ari dira, eta, gure senideen eskubideak errespetatzen ez diren bitartean, gure senide preso gehiago hiltzeko, eta, gure senide preso gehiagok ondorio fisiko eta sikiko larriak jasateko arrisku larria dago. Halaber, jada ondorio fisiko eta sikiko larriak jasaten ari direnen osasun egoera oraindik eta gehiago okertzeko arrisku larria dago.